

BASKEPENSIONES BURTSA EURO GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Arriskua bere gain hartu nahi duten eta batez ere Euroguneko burtsako baloreetan inbertitu nahi dutenentzat. %75 eta %100 artean inbertitzen du errenta aldakorrean (gutxienez %60 Eurogunean).

2020/06/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%5,91	%15,34	%-12,86	%-7,33	%-3,02	%-1,55	%2,52

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%-12,86	%21,12	%-15,28	%8,34	%0,58	%4,57	%1,46

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/06/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%28,31
Lurrunkortasun 3 urte**	%18,83

**Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

HILEKO IRUZKINA

Pandemiaren bilakaeran egon diren hobekuntzei esker, mundu-mailako ekonomiaren gehiengoak berrikeri ahal izan da, eta horrekin batera, baita "V" itxurako susperraldi ekonomikoa izateko itxaropena ere. Hala ere, koronabirusaren kasu berrien gorakadak birusaren bigarren bolada baten beldurra piztu du eta azkar berreskuratzeko itxaropenak hoztu ditu. AEBetan, hainbat estatutan agertutako kasu berriak direla eta, barne-mugimendua murrizteko neurriak berrezarri behar izan dituzte. Europan, Sendagaien Europako Agentziak koronabirusaren aurkako lehen farmakoari oniritzia eman diola jakin dugun arren, kasuek gora egiten jarraitzen dute eta begirada Europa iparraldean jarrita dago. Ingurune honetan, aurreratutako adierazle batzuek edo AEBtako enpleguaren eboluzioari buruzko datuek gora egin duten arren pandemia

hasi zenetik, 2020. urtea historikoki negatiboa izango dela baieztatzen ari da. NDFren azken aurreikuspenek BPGren jaitsierak iragarri dituzte, eta ekitaldi osoan digitu bikoitzaren inguruan ibiliko da Europan, edo % 5 inguru mundu-mailan. Birusaren ondorioak arintzeko helburuarekin, Banku Zentralen eta Gobernuen baldintzarik gabeko laguntza izaten jarraituko dute. EBZk, ekaineko bileran, joan zen martxoan sortutako pizgarrien plana 600.000 milioi handiagotzea erabaki du eta planaren iraunaldia luzatu du, gutxienez 2021era arte. FEDek, bere bileran jakinarazi zuen, tasak ez direla mugituko 2023ra arte gutxienez. Bestalde, Ingalaterrako Bankuak zorra erosteko bere programari 100.000 milioi libera gehitu dizkio, eta Japonian, Japoniako Bankuak enpresetarako mailegune areagotze bat jakinarazi du. Pizgarriei

dagokienez, badirudi AEB bilioi 1 dolarreko azpiegituren plan bat lantzen ari dela, ekonomiaren susperraldiari eusteko. Alemaniako gobernuak 130.000 milioi euroko bigarren pakete fiskala eta ekonomiaren susperraldirako funtsa onartu ditu, elkartasun franko alemaniarrek eta Europako Batzordeak babestua, zerga-politika komun baterako lehen urrats gisa; oraindik eztabaida gogorak sortzen dituen arren, babes erabakigarriak izaten hasi da. Beste alde batetik, esparru geopolitikoari dagokionez, beste hilabete bat igaro da Brexit-aren negoziazio-mahaian eta AEB eta Txinaren arteko tentsioetan aurrerapenik egin gabe; potentzia biak etsaitasuna handiagotzen duten erabakiak hartzen ari dira. Koronabirus kasuak berragertzen ari diren arren, ekainean burtsak bulkada bat izan dute Banku Zentralen

eta gobernuen baldintzarik gabeko babesari esker, Europa zerga-batasun baterantz joateari esker, datu makroekonomiko batzuen hobekuntzari esker eta birusaren auskako lehen farmakoaren oniritziari esker. Hala eta guztiz ere, S&P 500 indizeak % 1,84ko igoera izan du eta Nasdaq-ek gora egiten jarraitu du, % +16,30eko urteko errentagarritasun bat metatuz. Europako burtsak indar handia izan dute, kutsatze-kopuru txikiaren aurrean, Eurostoxx 50-ek % +6,03ko igoera izan du, baina Espainiako burtsa atzean geratu da (% +1,90). Europatik kanpo, Japoniako burtsak igoera txiki batekin (%1,88) amaitu du hilabetea, eta sortu berriek, guztira igoera handiena izan dute (% +6,96). Zorraren merkatuan, ekaina tasen jaitsierarekin itxi da Atlantikoaren bi aldeetan. Ildo berean, enpresa bonuek euren diferentzialak lasaitzen zirela ikusi zuten.

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	41.977.836,86
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolsio Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Oso Altua
Inbertsiorako gutxienezko epea:	-




Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. SANOFI-AVENTIS	%4,75
AC. ASML NA 121126	%4,65
AC. SAP SE	%4,38
AC. ALLIANZ	%3,97
AC. LVMH MOET VUITTON	%3,48

Errenta aldakorreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne. Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne.

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



BASKEPENSIONES BURTSA EURO GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez,
PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.

ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA